



JARRAIBIDEAK Ospitalizazioko Unitatea NEUMOLOGIA

Dei egiteko beharrean bazaude, erabili gelako txirrina

GUREAN ZAUDEN BITARTEAN JARRAITU BEHARREKO ARAU OROKORRAK

- Garbiketerako, gelan bertan komuna duzu, eta dutxa unitatean.
- Dei egiteko beharrean bazaude, erabili gelako txirrina, horrela lana errazten baitiguzu; kontrolera ateratzen bazara, baliteke gure lana oztopatzea.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Inoiz ez kendu oxigenoa, aldez aurretik kontsultatu gabe.
- Ospitalean zauden bitartean, tratamendua jarriko dizugu, normalean hartzen dituzun sendagaiak kontuan hartuta. Beraz, ez kezkatu sendagai haiengatik, eta guk emandako sendagaiak bakarrik hartu.
- Ez ahaztu ospitalean ISILTASUNA beharrezkoa dela.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratzeko unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurduak edo lurgabeak.

MEDIKUAREN IKUSTALDIA / SENIDEEI INFORMAZIOA



- Egutero, igandeetan izan ezik.
- 9:00etatik 13:00etara.
- Ordutegi honetan **paziente bakoitzarekin lagun bat bakarrik onartuko da**. Medikuek senideei gelatik kanpo emango die gaixotasunaren bilakaeraren berri.

OTORDUAK



9:00etan Gosaria
13:00etan Bazkaria
17:00etan Merienda
20:00etan Afaria

BISITAK

- 14:00etatik 21:00etara.
- **Pazienteko 2 pertsona, gehienez.** Nahi izanez gero, senide bat zurekin 24 orduz egon daiteke

BESTE GAUZA JAKINGARRI BATZUK



Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).



Ospitalean sartu izanaren enpresa edo familia-medikuarentzako **egiaztagiria** paziente edo senideek behar dutena, behe solairuko harreran, jasotzen da.



TXAGORRITXU OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007000

8:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono honetara deituz: 945000882.

Kanpora deitzeko, logelatik, telebistako txartelaren bidez ere deitu dezakezu.



Telebista-zerbitzua ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira; atarian duzu tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungintze-datarik, hortaz berriro erabil daiteke. Matxuraren bat gertatu edo behar izanez gero, deitu 1422 edo 636 46 59 37 telefonora.

Telebista - eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke-e.



KAFETEGIA Ordutegia: 8:00etatik 22:00etara.

Kafetegia erdisotoan dago.

Solairu batzuetan kafe eta freskagarri makinak daude, igogailuak dauden hallean, hain zuzen



OSPITALEKO ALTA, posible bada, aurreko egunean esango dizute edo bestela egun berean 12:30ean.

ALTA hartzeko egunean, gela 14:30ean utzi beharko duzu. Ordu horretetik aurrera alta txostenari eta senideei hallean itxaron behar diezu. Alta egunean zurekin senide bat izatea komenigarria da.

Laguntza erlijiosa eta espiritual:

- Ospitaleak zerbitzu erlijioso katolikoa du Kapean (1. solairuan). Harrera erlijiosoaren ordutegia: egutero 8:30etik 20:30era. Mezen ordutegia: Igande eta jaiegunetan 11:00etan.

- Beste erlijio batzuetako pazienteek eta senideek laguntza eskatu diezaiokete euren arimako maisuari.



PAZIENTEAREN ZAKO ETA ERABILTZAILAREN ZAKO ARRETA ZERBITZUA (PEAZ). Zerbitzu horren beharra izanez gero, Unitateko gainbegiralearen bidez eska dezakezu. Ordutegia:- Asteleheneetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara.